

55. atala: Bakarka

Eguberri iragarkiak

55.1.- Entzun audioa eta erantzun beheko galderak:

1) Hal-lonerekin arazoak daudenez, ...

- a) duela 50 urteko programazio-sistemak erabiltzea proposatu du Kevinek
- b) berehala itzuli behar dutela jakinarazi zaie astronautei
- c) duela 50 urteko programazio-sistemak konpondu eta eguneratzea erabaki dute astronautek.

2) Hal-loneren datuak ...

- a) azkar sartzen dira disko gogorrean Kevinen ustez.
- b) Kevinek bidaliko dizkio Eskisabeli bere disko gogorretik.
- c) Kevinek sartuko ditu, baina ez daki zenbat denbora beharko duen.



3) Gabonak ...

- a) oso gogoko ditu Tasiok
- b) Kevinek ez ditu gogoko, Gabonetan nahiago izaten du kanpora joan, bainujantzian hondartza batean egoteko.
- c) antzeman ditu Eskisabelek, izan ere, irratian betiko iragarki zaharrak entzuten hasi dela aipatu du.

4) Bi astronautak ...

- a) noiz itzuliko diren ez dago argi, horregatik Tasiok opari-zerrenda proposatu dio Antxoni.
- b) Eguberri inguruan itzultzea espero du Eskisabel kapitainak.
- c) Eguberriak baino lehen itzultzen badira, ongi-etorri festa egingo zaie.

55.2.- Gabonez aparte, hainbat festa ospatzen ditugu urtean zehar. Hemen, jai-egun batzuen zerrenda duzu. Eman bakoitzaren euskarazko itzulpena:

- Carnavales:
- Semana Santa:
- Semana de Pascua:
- Día internacional de los trabajadores:
- Día de Todos los Santos:
- Feria de Santo Tomas:
- Nochevieja:



55. atala: Bakarka

52.3.- Toki guztietan daude ospakizunak eta hainbat gauza ospatzen ditugu noiznahi: urtebetetzeak, Gabonak, herriko festak, sariren bat, eta abar. Aspaldi honetan, gaztelaniaren eraginez, askotan gaizki erabiltzen dugu “ospatu” aditza. Erreparatu “ospatu” aditzaren esanahiari:

Egun jakin bat edo gertaera bat jai edo ekitaldi berezi baten bidez gogoratzea. Beraz, ez dira ospatzen batzarrak, bilerak, epaiketak, ekitaldiak, futbol-partidak, e. a.

Azalpen hori kontuan hartuz, bete hutsuneak. Erabili aditz egokia kasu bakoitzean:

- Tasiok eta Kevinek Gabonak _____-t(z)en dituzte urtero.
- Kevinek Eskisabel kapitainarekin _____ nahi du etxera itzultzea.
- Gaurko atalean bilera bat _____ dute bi astronautek Eskisabelekin Hal-Ioneren arazoa aztertzeko.
- Eusko labelaren inguruko jardunaldiak _____ dituzte, astronautek egindako esperimientuen berri emateko.
- Tasiok eta Antxonek beren ezkontza lagunekin _____ zuten.
- Trebiñu II operazioari buruzko mahai-inguru bat _____ da, eta hainbat aditu ekarri dituzte lurretara.



55. atala: Bakarka**Transkripzioa (03:04)**

- T- Trebiñu II operazioak amaiera-datarik gabe jarraitzen al du?
- E- Oraingoz bai...
- T- Baina, momenturen batean erabaki bat hartu beharko duzue, ezta?
- E- Kontua da Hal-ionerekin arazoak ditugunez, irtenbide bila gabiltzala...
- T- Ha-hal-hal-ionerik gabe ez ez ez al dago ba ba ba bueltatzerik?
- E- Horretan gabiltza...
- K- Ez luke hain zaila izan beharko, ez? Duela 50 urteko programazio-sistemak erabili eta kitto.
- E- Benetan?
- K- "Benetan" hori zer da zure ohiko benetan? Edo Benetan?
- E- Benetazko "benetan"
- E- Ideia ero bezain zentzuduna iruditzen zait...
- K- Nahi baduzue, Iurretatik datuak pasa eta hemen, nik disko gogorrean sartuko dizkiot Hal-ioneri.
- T- Luze joko al dik horrek?
- K- Ezin diot zure galderari, horrela bat-batean erantzun, baina egingarria da...
- E- Johnson.. batzuetan....
- K- Harritu eta liluratu uzten zaitut... Bai, badakit, gau hartan bezalaxe...
- E- Johnson!
- K- Halaxe egiten zenuen oihu bai...
- E- Hemen dagoeneko, gabon-usaina eta zarata daukagu...
- T- Gaztain-saltzailleak, argiz beteriko kaleak... Badakit onartzea ñoño samarra dela, baina niri izugarri gustatzen zait Eguberria.
- K- Niri ere bai, baina Miami-koa. Bainujantzian eta hondartzan ospatzen den eguberria...
- E- Nik batez ere iragarki kontuarengatik nioen. Bat-batean iragarki berri mordoa entzuten hasi naiz irratian.
- T- Euskadi Irratian?
- E- Euskadi Irratian ere bai
- K- Ez zituzten kenduko aldeanoz hitz egiten duten...
- T- Nola aldeanoz?
- K- Bai, badira ba euskara oso graziosoan hitz egiten duten iragarki batzuk, espainolek gu imitatzen gaituztenean jartzen duten ahots horrekin...
- T- Fabore bat eskatu behar dizut, Eskisabel kapitaina.
- E- Esan...
- T- Susmatzen dudanez ez garela eguberriak baino lehen iritsiko...
- E- Ez zarete lehenago lurreratuko, ez. Hori behitza badakigu...
- T- Zerrenda bat pasa nahi dizut...
- E- Zerrenda bat?
- T- Bai, nire seme-alabei Gabonetarako erosi beharreko opari-zerrenda.
- E- Eta Antxon zer?
- T- Antxon gauza hauetarako... Nola esan? Jhonson bat da... desastre bat...
- E- jajajaa Aizu... Johnson aipatu dugun honetan... Non dabil?
- T- Hemen nire atzekaldean, Hal-ioneren disko gogorra aztertzeraz joan da.
- E- Berehala itzultzeko gogo duzue ezta?
- T- Berehala baino... Eguberri-tako suziri bihurtu gabe itzultzeko gogo.
- E- Lasai. Ikusiko duzue nola aterako den guztia ondo.
- T- Ziur al zaude?
- E- Jakina. Pentsa, hasi gara ongietorri-festa antolatzen.
- K- Esan baietz. Aizu, eta guapa jarri zaitez festarako bigotitos...

55. atala: Bakarka

Erantzunak

55.1.- a); c); a); b)

55.2.-

Carnavales: Inauteriak

Semana Santa: Aste Santua

Semana de Pascua: Pazko Astea

Día internacional de los trabajadores: Langileen nazioarteko eguna

Día de Todos los Santos: Domu Santu eguna / Santu guztien eguna

Feria de Santo Tomas: San Tomas eguna / azoka

Nochevieja: Urte Zaharra

55.3.-

- Tasiok eta Kevinek Gabonak *ospatzen* dituzte urtero.
- Kevinek Eskisabel kapitainarekin *ospatu* nahi du etxera itzultzea.
- Gaurko atalean bilera bat *egin* dute bi astronautek Eskisabelekin Hal-Ioneren arazoa aztertzeko.
- Eusko labelaren inguruko jardunaldiak *egin / antolatu* dituzte, astronautek egindako esperimientuen berri emateko.
- Tasiok eta Antxonek beren ezkontza lagunekin *ospatu* zuten.
- Trebiñu II operazioari buruzko mahai-inguru bat *egin / antolatu* da, eta hainbat aditu ekarri dituzte Iurretara.